BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

ZERBITZUEN KONTRATUA

Prozedura irekia

Espediente-zenb.: 2025002

Kontratazioaren xedea: Inbertsio-eragiketetako aholkularitzan laguntza-zerbitzuak emateko Esparru Akordioa.

1. ESPARRU AKORDIOAREN XEDEA

Baldintza teknikoen plegu honen (aurrerantzean, "**Plegua**") helburua da GESTIÓN DE CAPITAL RIESGO DEL PAÍS VASCO SGEIC, S.A. (en auerrerantzean, "**GCRPV**") sozietateak kudeatutako erakundeei legezko aholkularitzan laguntza-zerbitzuak ematea, horiek gauzatzen dituzten inbertsio-eragiketetan.

Gehienez, 4 esleipendun aukeratuko dira.

2. IRISMENA

Zerbitzuak GCRPV sozietateak kudeatutako erakundeei eman beharko zaizkie, hots, EZTEN FCR, BASQUE FCR, LANPAR 2013 FCR, SEED Gipuzkoa S.C.R., S.A. eta BASQUE KONFEKOOP VENTURES, FCR-PYME (horiek dira **"Erakunde Kudeatuak"**), eta inbertsio-eragiketetako aholkularitzan laguntza ematea sartuko da, kontratu aurreko fasetik hasi eta eragiketako behin betiko kontratuak formalizatu arte.

3. EMATEKO ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Zerbitzuan sartuko dira aurreko 2. puntuan adierazten dena betetzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak, zehazki, izaera enuntziatzailez soilik, honako hauek:

1) Laguntza aholkularitza juridikoan, prestaketa eta amaiera egiteko fusio eta eskurapeneko eragiketetan, private quity eragiketetan eta venture capital eragiketetan.

2) Honako hauek idatzi edota berrikustea, hala badagokio: konfidentzialtasun-akordioak (*NDA* ingelesezko ikurren arabera), asmoen gutunak, *term sheets izenekoak*, elkar ulertzeko akordioak eta antzeko dokumentuak, mugaz haraindiko osagaia dituztenak barne;

3) Honako hauek idaztea edota berrikustea, hala badagokio: inbertsio-akordioak, bazkideen akordioak eta eragiketaren gainerako dokumentu osagarriak.

4) Honako hauek idaztea edota berrikustea, hala badagokio: inbertsioa jasoko duen sozietateko organo sozialen akordioak, ebazpenak eta gainerako egintzak.

5) Inbertsio-prozesuaren barnean, bilkuretara bertaratzea, harremanak pertsonekin edo erakundeekin, negoziazioak, elkarrizketak, etab.

4. ZERBITZUAK EMATEA

Lizitatzaileek beren zerbitzuak bere eskaintzan zehaztu dituzten erakundearen eta pertsonen bidez emango dituzte. Pertsona horiek aldatzeko Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan adierazitakoaren arabera jardungo da.

Erakunde horiek eta pertsona horiek, kontratua egikaritzen den bitartean, bulego bat gaitu beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-esparruan.

Zerbitzuak berehala eman beharko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, "**EAE**") zerbitzu horien ondorioz berehala desplazatzea eskatuko da, eta EAE barneko desplazamendu-gastuak esleipendunaren konturakoak izango dira.

Aholkularitza-zerbitzuak gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez emango dira, alderdi kontratatzaileak nahieran. Aholkularitza-zerbitzu horiek emateko kontratatutako alderdiko pertsonek euskarazko edo ingelesezko nahiko maila ez badute, kontratatutako alderdiak bermatu beharko du, beste edozein bitarteko egokiagoren bidez, zerbitzuak hizkuntza horietan bideratzea, bere kontura.

Aholkularitza-zerbitzuak ematean aplikagarri diren araudi guztiak beteko dira, bereziki, araudi deontologikoa eta abokatutzaren jardun profesionalerako ezarritako gainerako arauak betez.

Interes-talkagatik edo beste inguruabar batengatik, abokatutzaren jardun profesionaleko araudiak kontrataturiko alderdiari plegu honetan adierazitako gaiei buruzko aholkularitza-zerbitzuak ematea eragozten badio, honela jokatuko da:

- Aholkularitza-zerbitzu horien eta aholkularitza-zerbitzuak beste pertsona bati eskaintzearen artean aukeratzeko beharra sortzen bada, kontratatutako aldeak nahitaez aukeratu beharko ditu Plegu honetan jasotako aholkularitza-zerbitzuak.

- Aholkularitza-zerbitzu horiek emateko eragozpenen bat sortzen bada, kontuan hartu ahal izango da aholkularitza-zerbitzu horiek beste profesional batzuekin kontratatzeko zenbatekoa, kontratatutako alderdiaren ordainsarian, kasuan kasuko inguruabar zehatzen arabera.

5. LANTALDEA

Lizitatzaileek beren proposamen teknikoan eskainiko duten lantaldeak langile kualifikatuak izan behar ditu, eta Plegu honen 3. atalean adierazitako inbertsio-eragiketetako eta arloetako teknikari adituek osatu behar dute. Zehazki, proposatzen den lantaldea honako hauek osatuko dute, gutxienez:

Profil profesional mota	**Profil profesionala**	**Eskatzen den gutxieneko esperientzia**
Juniorra	Jarduneko abokatua	3 urte baino gehiago
Seniorra	Jarduneko abokatua	8 urte baino gehiago
Bazkidea	Jarduneko abokatua	15 urte baino gehiago

6. KONTRATUEN ESLEIPENA HAUTATUTAKO KONTRATISTEN ARTEAN OINARRITUTA

Zerbitzuak ematea Esparru Akordiotik eratorritako kontratu segida gisa planteatzen da, inbertsio-eragiketa bakoitzeko bat, eta GCRPV sozietateak eskatuta gauzatuko dira.

Horrela, inbertsio-eragiketa gauzatuko duen Erakunde Kudeatuak aldez aurretik egindako eskaera oinarritzat hartuz, GCRPV sozietateak hiru eskaintza eskatuko ditu, eta kontratista hautatzeko esleipen-irizpide bat edo gehiago erabil daitezke. Esleipen-irizpideek haztapen ezberdina izan ahalko dute.

Oinarritutako kontratu bat egikaritzeko hautatutako kontratista batek ezingo du, inolaz ere, hura gauzatzea ukatu, justifikatzen ez badu, eta GCRPV sozietateak eskatutako zerbitzu guztiak eman beharko ditu.

7. LANEN ZUZENDARITZA

GCRPV sozietatearen aldetik Kontratuko Arduradun bat egongo da. Berak ezarriko ditu Plegu honen xede den aholkularitzari dagozkion jarraibideak, eta jarraibide horiek derrigorrez betetzekoak izango dira esleipendunarentzat.

Honako hauek dira, besteak beste, Kontratuko Arduradunaren oinarrizko zereginak:

- Konkurtso hau arautzeko Pleguetan eta kontratuan ezarritako gainerako xedapenetan jasotzen diren klausulak interpretatzea.

- Lanen garapena gainbegiratzea.

- Txostenak, azterlanak eta kontratuaren xede diren gainerako lanak agintzea.

- Esleipendunari beharrezkoak diren kredentzialak ematea beste erakunde ofizial batzuen aurrean.

Lizitatzaileak berak esku hartutako gaien nondik norakoen berri eman beharko dio GCRPV sozietateari, edozein ebazpen edo jakinarazitako idatziren berri berehala jakinaraziz. Era berean, GCRPV sozietateko lantaldeko kide diren teknikariekin ezagutzak trukatu beharko ditu.